

2021  2026

ESTRATEGIA
VASCA DE SEGURIDAD
Y SALUD EN EL TRABAJO



KUDEAKETA PLANA 2026

Kudeaketa Plana

2026



Barakaldo, 2026

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de OSALAN: https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Lan honen bibliografia-erregistroa OSALANeko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke: https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of OSALAN: https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

- Izenburua / Título: Plan de Gestión 2026 / 2026eko Kudeaketa Plana.
- Argitaraldia / Edición: 1.a. 2026eko apirila/ 1.ª edición, abril de 2026.
- Ale-Kopurua / Tirada: 20 ale / 20 ejemplares.
- Egileak/ Autoría: OSALAN- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.
- © Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. OSALAN- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.
- Argitaratzailea / Edita: OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Dinamita Bidea, z.g. / Camino de la Dinamita, s/n 48903 Barakaldo (Bizkaia).
- Internet: www.osalan.euskadi.eus
- Diseinua, fotokonposizioa eta inprimaketa / Diseño, fotocomposición e Impresión: Editorial MIC · www.editorialmic.com
- Lege-gordailua / Depósito legal: LG BI 401-2025

AURKIBIDEA

Osalanen 2026ko Kudeaketa Planaren aurkezpena 6

1. ARDATZA: KULTURA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI KULTURAL GISA 9

1. HE: Laneko segurtasunari eta osasunari buruz kontzientziatuago dagoen gizartea, hobeto ezagutzen duena eta arduratsuagoa laneko arriskuak prebenitzeko orduan 9

2. HE: Lan-arriskuen prebentzioan kontzientziatuago dagoen kolektibo autonomo bat 10

2. ARDATZA: PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEKOA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA, ERAKUNDEEN (ENPRESA PRIBATU ETA PUBLIKOAK, ADMINISTRAZIOAK) BIKAINTSUNAREN EZAUGARRI GISA, ENPRESA-SARE IRAUNKOR, MODERNO ETA LEHIAKOR BAT FINKATZEAREN ESPARRUAN 11

3. HE: Enpresak erresilienteak dira eta osasun-krisi eta -larrialdi egoerei aurre egiteko gai dira 11

4. HE Enpresek eta erakundeek kalitatezko LAP eredia dute 11

5. HE: Laneko istripuek eta gaixotasunek osasunari eragindako kalteak gutxitu egin dira 14

3. ARDATZA: GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN BALIOA EMATEN DIOTE LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEN GOBERNANTZARI 19

6. HE: Botere publikoen legeak egiten dituzte EAEko administrazioaren eskumenen barruan, egungo araudia berrikusten dute, hura hobetzea sustatzen dute, hura betetzeko aholkuak ematen dituzte eta betetzen dela kontrolatzen dute 19

7. HE: Gobernuaren eta beste administrazio publiko batzuen politika guztietan laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduerak sartzen dira 20

8. HE: Lan Arriskuen Prebentzioaren egungo ereduan (autonomoak, plataformak, etxeko lana) sartzea zaila duten lan-moduen pean dauden kolektiboen lan-baldintzak eta LSO-rako sarbidea hobetu dira 24

9. HE: Ezagutza sortzen da, laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegidun prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, gizarte-aldaketei (zahartzea, lana antolatze modu berriak, globalizazioa), teknologikoei (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumen-aldaketei (klimate-aldaketa) aurrea hartzea ahalbidetzen duena 24

10. HE: Informazio-sistema eta adierazle egokiak ezartzen dira, datuak sistematikoki biltzeko, aztertzeko eta eragileei eta gizarteari itzultzeko, osasuna prebenitzeko eta babesteko beharrezkoak diren neurriak planifikatu eta ebaluatzeko, genero-ikuspegia eta beste gizarte-baldintzatzaile batzuk kontuan hartuta 27

12. HE: Indartu eta sendotu egin da gizarte-eragileekiko elkarrizketa, LAP-en kudeaketa-eredu bat lortzeko, pertsonak erdigunean jarri eta gizarte-determinatzaileak txertatzen dituen 27

Osalanen 2026ko Kudeaketa Planaren aurkezpena

Atsegin handiz aurkezten dugu **Osalanen 2026ko Kudeaketa Plana**, Euskal Autonomia Erkidegoko XIII. legegintzaldiko bigarren kudeaketa-plana. Plan honek jarraipena ematen dio Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2021-2026 Euskal Estrategiari, eta lan-osasunaren babesarekin dugun konpromisoa indartzen du. Aurten, arreta berezia jarriko dugu tradizioz laneko arriskuen prebentzioa (LAP) eguneroko jardueran txertatzeko zailtasun gehien izan dituzten kolektiboetan eta sektoreetan: etxeko langileak, langile autonomoak eta lan-egitura bereziki konplexuak dituzten sektoreak. Kudeaketa Planak Osalanen Kontseilu Nagusian ordezkatuta dauden gizarte- eta ekonomia-eragileek hartzen dute parte. Kontseilu hori erakundearen kontsulta- eta partaidetza-organoa da, eta laneko arriskuen prebentzioa lan-eremu guztietara eramateko konpromisoa indartzen du.

Plana Euskal Estrategiaren hiru ardatz nagusien inguruan antolatzen da:

- **1. ardatza: Kultura.** Laneko arriskuen prebentzioa, euskal gizartearen kultura-ezaugarri gisa. Ardatz honen helburua da gizartearen kontzientziatzea segurtasunak eta osasunak lanean duten garrantziaz, portaera seguruak eta lan-ingurune osasungarriak sustatzen. Horretarako, sensibilizazioa eta kultura prebentiboa indartzeko ekintzak biltzen ditu, hedapen-kanpainen bidez, hedabideetan eta sare sozialetan presentzia izaten, eta ikastaro eta dibulgazio-materialen bidez oinarritzko

prestakuntza ematen. Horrez gain, prebentzioa hezkuntza-sisteman txertatzea bultzatzen du, eta OSALAN EHU Katedra bezalako ekimen estrategikoak indartzen ditu, kolektibo autonomoarentzako laguntza espezifikoekin batera.

- **2. ardatza: Prebentziozko kudeaketa sendoa eta kalitatezkoa.**

Ardatz honen helburua laneko arriskuen prebentzioa indartzea da, erakundeetan bikaintasun-elementu gisa, prebentzioko kudeaketa-eredu sendoak eta kalitatezkoak sustatuta. Jardueren koordinazioa hobetzeko, premia handienak dituzten sektoreetan (lehen sektorea eta industria, esaterako) prebentzioa bultzatzeko eta genero-ikuspegia integratzen duten materialak egiteko jarduerak biltzen ditu. Era berean, prebentzioaren kalitatea indartzera bideratutako ekintzak aurreikusten ditu eremu espezifikoetan, hala nola istripu eta gaixotasun profesionalen ikerketan, arrisku ergonomiko eta psikosozialetan, agente arriskutsuekiko esposizioan eta laneko bide-segurtasunean.

- **3. ardatza: Gobernantza.** Ardatz honek balioan jartzen du botere publikoek laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko duten zeregina, eta indartu egiten ditu araudiaren kalitatea, haren betetzea eta laneko arriskuen prebentzioaren kontrola. Prebentzioa politika publikoetan integratzea eta Estatuko eta Europako egituretan parte hartzea sustatzen du. Informazio-sistemak modernizatuz, prebentzio-kudeaketa erraztuko duten tresna informatikoak bultzatuz, datuen bilketa eta analisi indartzera, osasun-erakundeekin



lankidetzan aritzera eta barne-antolaketa eta ezagutzaren kudeaketa hobetzera bideratutako jarduerak biltzen ditu.

2026ko Kudeaketa Planarekin, Osalanek laneko arriskuen prebentzio inklusiboago, irisgarriago eta euskal lan-sarearen aniztasunera egokituago batekiko konpromisoa berritu du. Aurten aurrera egingo dugu, bereziki, beren jarduera hain egituratuta ez daukatenekin edo prebentzio-oztopo handienak dituztenei babesa ematen. Ziur gaude, prebentzioaren

kultura, kudeaketaren kalitatea eta gobernantza publikoa indartzen, lan-ingurune seguruagoak, osasungarriagoak eta bidezkoagoak eraikitzen jarraituko dugula, eta bermatuko dugula ezein langile ez dela Euskal Autonomia Erkidegoko laneko segurtasun eta osasunetik kanpo geratuko.

Lourdes Íscar Reina
OSALAN-Laneko Segurtasun
eta Osasunerako Euskal Erakunde
zuzendari nagusia

OSALAN 2026

Kudeaketa Planerako proposatutako ekintzak



ARDATZA KULTURA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA EUSKAL GIZARTEAREN EZAUGARRI KULTURAL GISA

1

1. HE: Laneko segurtasunari eta osasunari buruz kontzientziatuago dagoen gizarte, hobeto ezagutzen duena eta arduratsuagoa laneko arriskuak prebenitzeko orduan

Zk.	EKINTZAREN IZENA
1.1	<p>Lan-arriskuaren prebentzioaren kultura sustatzea euskal gizartean, eta jokabide seguruak eta lan-ingurune osasungarriak sustatzea, erakunde honen mezuak komunikabideetan Interneten eta sare sozialetan zabalduz, zehazki:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikabideen bidez laneko segurtasuna eta osasuna sustatzea. • Sentsibilizazio-kanpainak egitea eta zabaltzea, besteak beste: <ul style="list-style-type: none"> » Laneko Segurtasun eta Osasunaren Munduko Egunaren kanpaina. » Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Astearen kanpaina. • Lantokietako segurtasunaren eta osasunaren kudeaketa aktiboari eta parte-hartzaileari buruzko sentsibilizazio-mezuak zabaltzea hilerro. Mezuak hainbat kolektibori zuzenduta egongo dira, eta arrisku-faktoreei buruzkoak izango dira, hilerro. • Herritarrei zuzendutako plataforma anitzeko prebentzio-mezuak: <ul style="list-style-type: none"> » Lan-baldintzak baldintza klimatologikoen arabera egokitzeko alertak. » Aholkuak. » Albisteak. • OSALANen presentzia Interneten eta herritarrekiko elkarreragina sare sozialen bidez sustatzea.
1.2	<p>OSALANek Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko XVI. Ikastaroa antolatzea, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Udako Ikastaroen barruan.</p>
1.3	<p>Lan-arriskuaren prebentzioaren kultura areagotzea irakaskuntza-ziklo guztietan.</p> <ul style="list-style-type: none"> • GaztePreben espazioa mantentzea, espazio hori hezkuntza-munduari ezagutarazteko, eta haren edukia eguneratu eta hobetu daitekeen aztertzea. • ADI proiektua bultzatzea. • Lanbide-heziketako ikastetxeen bisita-programari eustea Osalanen eta hala eskatzen duten ikastetxeetan bertan. • Eusko Jaurlaritzaren Gazte Planarekin lankidetzan aritzea.
1.4	<ul style="list-style-type: none"> • Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko dibulgazio-materiala eta argitalpenak kudeatzea, egitea, editatzea eta zabaltzea, eta langileei, enpresei, prebentzio-zerbitzuei, gizarte-eragileei, prestakuntza-erakundeei eta, oro har, herritarrei helaraztea. • Osalanen edukien produkzioan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistari buruzko prozedura bat egitea.
1.5	<p>Laneko Medikuntza eta Erizaintzako EHU-OSALAN katedra: Medikuntza eta Erizaintzako graduatetako ikasleen artean Laneko Medikuntza eta Erizaintzako espezializazio-ikasketekiko interesa sustatzea, eta interes komunekin arloetan lan egiten duten erakundeekin arteko elkartruke- eta lankidetzak harremanetan sakontzea. 2026rako jarduerak programa egitea katedraren eremuan.</p>



2. HE: Lan-arriskuen prebentzioan kontzientziatuago dagoen kolektibo autonomo bat	
Zk.	EKINTZAREN IZENA
2.1	<p>Langile autonomoen artean laneko arriskuen prebentzioaren kultura sustatzea eta areagotzea, eta OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak dituen balioak proiektatzea, jokabide seguruak eta lan-ingurune osasungarriak sustatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none">• OSALANen webgunean berriazko ezagutza-gunea elikatzea, laneko arriskuen prebentzioari buruzko dibulgazio-lanak jartzeko eta sustatzeko: albisteak, araudia, dokumentazioa eta abar, batez ere langile autonomoentzat.• Langile autonomoei zuzendutako laneko arriskuen prebentzioari buruzko prebentzio-gomendioak bilduko dituen materiala prestatzea: liburuxkak, kartelak, informazio-fitxak.• Online prestakuntzan modulu berriak garatzea jarduera-sektorearen arabera.• Sei hilean behin elkargune bat ezartzea Osalanen eta langile autonomoen elkarteen artean.• Autonomoen kolektiboari zuzendutako laneko arriskuen prebentzioko jardunaldi bat egitea.



ARDATZA 2 PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SENDOA ETA KALITATEKOA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA, ERAKUNDEEN (ENPRESA PRIBATU ETA PUBLIKOAK, ADMINISTRAZIOAK) BIKAINTRASUNAREN EZAUGARRI GISA, ENPRESA-SARE IRAUNKOR, MODERNO ETA LEHIAKOR BAT FINKATZEAREN ESPARRUAN

3. HE: Enpresak erresilienteak dira eta osasun-krisi eta -larrialdi egoerei aurre egiteko gai dira

Zk.	EKINTZAREN IZENA
3.1	Osasun Publikoko Zuzendaritzak, OSALANek eta prebentzio-zerbitzuetako ordezkariak osatutako koordinazio-taldea mantentzea, OSAKIDETZAREN parte-hartzearekin. Sor daitezkeen arazoak konpontzeko edo osasun-krisi edo -larrialdi egoerei aurre egiteko.

4. HE: Enpresek eta erakundeek kalitatezko LAP eredia dute

Zk.	EKINTZAREN IZENA
4.1	<p>Genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzian txertatzeari buruzko materiala eta dibulgazio-ekintzak garatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dibulgazio-materialak egitea. • Egindako azterlanen ondorioak zabaltzea. • Generoari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko ponentziak ematea hainbat forotan.
4.2	<p>Gaikako lan-gosariak antolatzea, prebentzioaren kudeaketari buruzko arazo zehatzak aztertzeke, sektore bakoitzeko enpresen, prebentzio-zerbitzuen, Lan Ikuskaritzaren eta Lan Agintaritzaren parte-hartzearekin.</p>

4. HE: Enpresek eta erakundeek kalitatezko LAP eredia dute

Zk.	EKINTZAREN IZENA
4.3	<p>Lehen sektorean laneko arriskuen prebentzioa bultzatzea.</p> <p>2025-2027 Talka Planeko jarduerekin jarraitzea basogintza-sektoreko ezbehar-tasa murrizteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Basoko lantokia irekitzeko jakinarazpenak. • Basozaintzako ikastaroa: enpresa errematatzaileen jardueraren arrisku-egoerak. • Basogintza-sektorean prebentzio-zerbitzu mankomunatuak bultzatzearen komenigarritasunari buruzko azterlana. • Errematatzaileen zereginen lan-prozesuei buruzko prebentzio-fitxak zabaltzea. • Dibulgazio- edo sentsibilizazio-ekintzak nekazaritza eta basogintzako eskoletan. • “Zur-hautsaren esposiziopean dauden langileen sudur-barrunbetako eta sinu paranasaletako adenokartzinomaren osasun-zaintza espezifikorako protokoloari” buruzko dibulgazio- edo sentsibilizazio-ekintzak.
4.4	<p>Lehen sektorean laneko arriskuen prebentzioa bultzatzea.</p> <p>Nekazaritza-sektoreko jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sasoikako langileen kolektiboa laneko arriskuen prebentzioaren arloan sentsibilizatzea. • Sasoikako Lanaren Planean parte hartzea, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzarekin batera. <p>Arrantza-sektoreko jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dibulgazio- edo sentsibilizazio-ekintzak nautika-eskoletan. • Sektoreari zuzendutako dibulgazio- edo sentsibilizazio-ekintzak (CNSSTren lantaldearen 2026ko kanpainako sentsibilizazio-planaren esparruan). • Arrantza-ontziak bisitatzeko SEGUMAR kanpainan parte hartzea Lan Ikuskaritzarekin, Itsasoko Kapitaintzarekin eta Itsasoko Gizarte Instrukzioarekin batera.
4.5	<p>Lehen sektorean laneko arriskuen prebentzioa bultzatzea.</p> <p>Euskadiko elikaduraren eta zuraren balio-katerako segurtasun- eta osasun-arloko estrategia egitea, onartzea eta zabaltzea, aurreko estrategia ebaluatu ondoren.</p> <p>Erakundeen arteko lankidetzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Erakunde arteko Batzordearen bilerekin jarraitzea, Aldundiak bertan direla, ezarritako lankidetzak bideak mantenduz. • Foru-aldundietako eta OSALANeko langileek osatutako talde teknikoan laguntzea, Euskadiko Erakunde arteko Batzordearen esparruan, prebentzio-jarduerak modu koordinatuan bultzatzeko lehen sektorean eta haren balio-katean. • E-PREBEN udako ikastaroa, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Udako Ikastaroen barruan.



4. HE: Enpresek eta erakundeek kalitatezko LAP eredia dute

Zk.	EKINTZAREN IZENA
4.6	<p>Etxeko zerbitzuetan laneko arriskuen prebentzioa bultzatzea.</p> <p>Etxeko enplegatzaileen eta enplegatuen laneko segurtasunari eta osasunari buruzko ezagutza sustatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> » Enplegatzaileei aholkuak ematea arriskuen ebaluazioak egiteko eta prebentzio-neurriak planifikatzeko. » Etxeko laneko arriskuen prebentzio-neurriei buruzko dibulgazio- eta sentsibilizazio-materiala (infografiak) garatzea. » Enplegatzaileekin eta etxeko langileekin elkartzeko foroetan parte hartzea, zalantzak argitzeko.
4.7	<p>Enpresan laneko arriskuen prebentzioaren kalitatearen eredia garatzea, prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueren kalitatea barne, eta Euskadin proba pilotua abian jartzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpresetako prebentzio-ekintzen kalitatea ebaluatzeko tresnak garatzea eta horiek hobetzeko irizpideak zehaztea Laneko Segurtasun eta Osasunerako Lurralde arteko Sareko "Prebentzio Zerbitzuen Kalitatea" lantaldean. • EAeko hainbat enpresatan arriskuak ebaluatzeko eta planifikatzeko prebentzio-jarduerak ebaluatzeko tresnak probatzeko proba pilotua. • Tresnak doitzea enpresa txikientzat eta laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko zailak diren beste enpresa batzuentzat. • Administrazioen arteko koordinazioa eta informazio-trukea hobetzeko proposamenak (lan- eta osasun-agintariak eta SSL institutuak). • Kalitatezko laneko arriskuen prebentzioaren ereduaren diseinuan eta ezarpenean gizarte-eragileen parte-hartzea adostea. • Prebentzio-zerbitzuek kalitateko laneko arriskuen prebentzioaren eredia zehazten eta ezartzen parte har dezaten adostea.
4.8	<p>Higiene-laborategiaren bidezko zerbitzuak: neurketa analitikoak egitea.</p>

5. HE: Laneko istripuek eta gaixotasunek osasunari eragindako kalteak gutxitu egin dira	
Zk.	EKINTZAREN IZENA
5.1	<p>Gaixotasun profesionalaren susmoei buruzko informazio-sistema, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko zerbitzuek eta prebentzio-zerbitzuetako osasun-zerbitzuek lan-jatorria izan dezaketen gaixotasunak jakinarazteko.</p> <ul style="list-style-type: none">Hobekuntza-lerroen proposamena hiru hilean behin egiten den jarraipen-batzordean. Honako hauek parte hartzen dute batzorde horretan: OSALAN, Ikuskaritza Medikoa, GSIN, mutuak, Osakidetza.
5.2	<p>OSALANen eskumen-eremuko lan-istripuak ikertzea.</p> <ul style="list-style-type: none">Lanaldian eta in itinere gertatutako lan-istripu hilgarri guztiak (traumatikoak ez direnak barne, eragin ditzaketen arrisku-faktoreak kontuan hartuta), oso larriak, larriak eta biktima ugari dituztenak ikertzea.Prebentzio-intereskotzat jotzen diren lan-istripu arin guztiak ikertzea.<ul style="list-style-type: none">Istripu anitzak.Kalifikazio okerra izan dezaketen istripuak.Alerta-planaren barruan istripuak baloratzea.Arrisku psikosozialeko faktoreekin zerikusia duten istripu ez-traumatikoen analisia.Autonomia-erkidegoekin eta Osasun Ministerioarekin batera, kausa kardiobaskularrek eta/edo zerebrobaskularrek (patologia ez-traumatikoak) eragindako lan-istripuei lotutako aldagaiak ikertzeko prozedura egiten parte hartzea
5.3	<p>Agerraldien, alerten eta kasu-multzoen (klusterrak) zaintza epidemiologikoa.</p>
5.4	<p>Gaixotasun profesionalak ikertzea. Autonomia-erkidegoek eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako prozedura.</p> <ul style="list-style-type: none">Ikerketa, autonomia-erkidegoek eta INSSTk egindako prozedura aplikatuz. EESST 2023-2027rako LG Plataforman sartzeko taldean parte hartzea. Osasun kardiobaskularrean ondorioak dituzten LI ez-traumatiko gisa jakinarazitako LGak sartuko dira.Diziplina anitzeko taldeen (medikuak, teknikariak eta ikuskatzaileak) bidezko ikerketa.Enpresak eta prebentzio-zerbitzuak elkartzeko foroak, hautatutako lanbide-gaixotasunen ikerketen emaitzak azaltzeko: hobekuntza-ildoen proposamenak.
5.5	<p>OSALANen eskumenei dagokienez, enpresen, langileen, haien ordezkarien eta prebentzio-erakundeen laguntza teknikoko eta kontsultetako eskaerei aholku ematea eta erantzutea.</p>
5.6	<p>Lantokiaren irekiera jakinarazten duten enpresetako lantokietan laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia gainbegiratzea.</p>



5. HE: Laneko istripuek eta gaixotasunek osasunari eragindako kalteak gutxitu egin dira	
Zk.	EKINTZAREN IZENA
5.7	<p>Zaintza postokupazionalerako (ZPO) jarduketak egitea eta kudeatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Amiantoaren eraginpean egon daitezkeen langileen fitxategia kudeatu eta eguneratzea, laneko osasunaren zaintza errazteko lan-bizitzan amiantoaren eraginpean egon ahal izan diren langileei. • Silizearen eraginpean dauden langileen okupazio osteko zaintzarako prozedura. • Plana egiteko, CNNSTko eta Lan Osasuneko Ponentziako bi lantaldeetan parte hartuko da, bi eremu definitzeko, eraginpean dagoen biztanleria eta zaintzeko ondorioa.
5.8	<p>Alerta-sistema, lesio larrienak eta ohikoak eragiten dituzten lan-istripuek (LI) eta gaixotasun profesionalak (GP) osasunari eragindako kalteen aurrean ikertzeko eta esku hartzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Altueran erortzea: <ul style="list-style-type: none"> » Eraikuntza <ul style="list-style-type: none"> - Estalkiak birgaitzea. - Panel fotovoltaikoak instalatzea. - Esekitako saskietatik ezpondak mantentzea. » Industria <ul style="list-style-type: none"> - Arrisku-faktoreei eta neurri zuzentzaileei buruzko prebentzio-dokumentu bat egitea. - Lan-istripuen ikerketa-txostenetan proposatutako prebentzio-neurrien ezarpenaren jarraipena eta berrikuspena egitea enpresek. • Harrapaketak: <ul style="list-style-type: none"> » Industria <ul style="list-style-type: none"> - Arrisku-faktoreei eta neurri zuzentzaileei buruzko prebentzio-dokumentu bat egitea. - Lan-istripuen ikerketa-txostenetan proposatutako prebentzio-neurrien ezarpenaren jarraipena eta berrikuspena egitea enpresek. - Makinen diseinu desegokiarekin eta/edo prebentzio-neurri eskasekin lotutako istripuen kausak detektatzea. • Nahasmendu muskulueskeletikoak eraikuntzaren sektorean. <p>Ondorioak aurkeztea eta istripu errepikatuak prebenitzeko fitxak garatzea, 2025ean garatutakoak: estalkietako eguzki-panelak instalatzeko eta mantentzeko lanetan altuera erortzea eta zurezko telefono-zutoina haustearen ondorioz altuera erortzea.</p>
5.9	<p>Ezpondak egonkortzea. Prozedura prestatzeko gida argitalpena berrikustea eta eguneratzea.</p>



5. HE: Laneko istripuek eta gaixotasunek osasunari eragindako kalteak gutxitu egin dira	
Zk.	EKINTZAREN IZENA
5.10	<p>Arrisku ergonomikoen ondoriozko nahasmenduei dagokienez, lan-baldintzak hobetzeko ekintzak garatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ergolan proiektuarekin jarraitzea, giharretako eta eskeletoko nahasmenduen intzidentzia murrizteko, arrisku ergonomikoen ebaluazioak baloratzeko eta prebentzio-neurriak proposatzeko: <ul style="list-style-type: none"> » Eraikuntza-sektoreari zuzendutako bisita-kanpainarekin jarraitzea. » Bildutako informazioa aztertzea eta kanpainan lortutako ondorioak zabaltzea. » Prebentziozko fitxa bat diseinatzea eta zabaltzea, egoitza soziosanitarioen eremuan arrisku ergonomikoa prebenitzeko. • ErgoPreben espazioa OSALANen webgunean mantentzea: <ul style="list-style-type: none"> » Ergonomiako jardunbide egokiak zabaltzea, Ergolan kanpainaren emaitzen ondorioz. » Aldizkako gomendio prebentibo-ergonomiko batzuk sartzea. • “Lan-gosariak” motako espazioak, emaitzak azaltzeko eta prebentzio-neurriak hobetzeko sektore bereko enpresa parte-hartzaileekin. • Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren lantaldean parte hartzea: “Arazo muskulueskeletikoak”.
5.11	<p>1.- Laneko minbizia prebenitzea eta zaintzea, bereziki mesotelioma, sinu paranasaletako minbizia eta angiosarkoma. Txandakotasunaren eta minbiziaren egoeraren azterketa.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bularreko minbiziari eta txandatasunari buruzko jardunbide egokiak zabaltzea osasunaren zaintzan. • Lankidetzat Osasun Sailarekin: informazioa trukatzeko. • Programan sartutako minbizi bakoitzaren ikerketa epidemiologikoa. <p>2.- INSSTrekin eta autonomia-erkidegoekin parte hartzea Laneko Minbiziaren Agenda Nazionalan: lantaldeetan parte hartzea.</p> <p>3.- Bizkaiko INSS- CVMrekin lankidetzan aritzea “Soldadura-postuetan agente kimikoen, kantzerigenoen, mutagenoen eta/edo birprotoxikoen eraginpean egon daitekeen ebaluatzeko proiektua” garatzeko.</p>
5.12	<p>Arrisku psikosozialen arloko laguntza eta aholkularitza:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laneko agintarien eta agintari judizialen eskaerei/errekerimenduei erantzutea. • Laneko Segurtasun eta Osasuneko Batzorde Nazionalaren lantaldean parte hartzea: “Arrisku psikosozialak eta osasun mentala”. • “Arrisku psikosozialen” lantaldean parte hartzea autonomia-erkidegoekin eta LSQInekin. • Prebentzio-zerbitzuekin tailer bat egitea, 2025eko kanpainaren ondorioak azaltzeko. • Osalane Laneko Psikosoziologiari buruzko XVI. Jardunaldiak antolatzea.



5. HE: Laneko istripuek eta gaixotasunek osasunari eragindako kalteak gutxitu egin dira	
Zk.	EKINTZAREN IZENA
5.13	<p>Osasuna sustatzeko programak egitea eta garatzea: adina eta lana, osasun mentala eta lan-baldintzak, adikzioen prebentzioa enpresan.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpresa osasungarriaren sustapenean aurrera egitea: hobekuntzak sustatzea antolamendu-aldaketako teorietan eta metodoetan oinarritutako prozesuen bidez. • Espainiako Enpresa Osasungarrien Sarearen urteko topaketan parte hartzea. • Adikzioei buruzko inkestaren analisia, ondorioak eta zabalkundea Euskal Autonomia Erkidegoko lan-eremuan (Euskadi, 2023). • Osasunaren sustapenaren arloko online informazio-pilulak egitea.
5.14	<p>Higiene-proiektuak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eraikuntzaren sektoreko langileen babesa sustatzea silize kristalino arnasgarriarekiko esposizio-arriskuaren aurrean, honako hauen bidez: <ul style="list-style-type: none"> » Egoeraren azterketa: arrisku-jarduerak, egindako arriskuaren ebaluazioa eta enpresek ezarritako prebentzio-neurriak. » Diziplina anitzeko lantaldea sortzea, dauden lan-arriskuak eta prebentzio-neurri zehatzak zehazteko, agente kantzerigenoekiko esposizio-arriskuaren ikuspegia eta osasunaren zaintza (okupazionala eta lan egin ostekoa) barne. Lotura kudeaketa-planaren 5.7 ekintzarekin (OZP). » Egoeraren azterketatik abiatuta gauzatu beharreko ekintzak zehaztea. • Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren lantaldean parte hartzea: “Kristal-silize arnagarria”.
5.15	<p>Osasuna zaintzeko protokoloak egitea, berrikustea eta zabaltzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bibrazioen eraginpean dauden pertsonen osasuna zaintzeko protokoloa argitaratzea eta zabaltzea. • Radonaren eraginpean dauden langileen zaintza-protokolo espezifikoak egiten parte hartzea. • Agente kimikoen eraginpean dauden langileen osasunaren zaintzaren protokolizazioaren berunaren fitxa egitea eta argitaratzea. • Gailu digitalen eraginpean dauden langileen ikusmen-osasuneko protokoloa egiten parte hartzea.
5.16	<p>Lan-munduan bide-segurtasunaren kultura sustatzea, eta erreferentziatzen har daitezkeen eta laneko bide-arriskuak murrizteko ekintza berriak garatzeko baliagarriak izan daitezkeen tresnak identifikatzea eta lantzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Innovabide programaren batzorde zuzentzailean eta batzorde teknikoan parte hartzea, “Euskadiko Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguruko eta Iraunkorreko Plan Estrategikoa, 2021–2025” delakoaren markoan. • Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren lantaldean parte hartzea: “Laneko Bide Segurtasuna”. • Bide-segurtasuneko plana enpresen prebentzio-planean sartzeko jarraibideak lantzea.



5. HE: Laneko istripuek eta gaixotasunek osasunari eragindako kalteak gutxitu egin dira	
Zk.	EKINTZAREN IZENA
5.17	<p>Udalerrietako udalei amiantoa duten materialen tratamenduari eta kudeaketari buruz aholkua ematea.</p> <ul style="list-style-type: none">• Lankidetzan aritzea agintariekin (lanekoa, ingurumenekoa, osasunekoa, udalekoa), hondakinei buruzko 7/2022 Legearen 14. xedapen gehigarriaren esparruan langileei lotutako prebentzio-neurri egokiak sustatzeko.• Udalei aholkularitza ematea amianto-errola egiteko sortu diren zalantza teknikoen aurrean.• Prestakuntza ematea udaletako teknikariei zuzendutako ikastaro batean, udal-inbentarioak egiteko.• Dibulgazio-ekintzak egitea udalei, erakundeei eta enpresei obretan eta instalazioetan amiantoa duten materialen presentzia identifikatzen laguntzeko.
5.18	<p>Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanak egitea, genero-ikuspegitik:</p> <ul style="list-style-type: none">• Prebentzio-zerbitzu propioa eta mankomunatuak duten enpresetan genero-ikuspegiaren integrazio-mailari buruzko azterlana argitaratzea eta zabaltzea.• Emakumeek eta gizonek laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan duten egoerari buruzko azterlana: lan-baldintzak, arriskuen pertzepzioa eta osasunerako kalteak, lan-eremuko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak barne.
5.19	<p>Indarkeria matxistaren eta sexu-indarkeriaren prebentzioa txertatzea laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa-sisteman:</p> <ul style="list-style-type: none">• Lan-eremuan eragina duten sexu-indarkeria eta sexuan oinarritutako indarkeria motak eta beste indarkeria matxista mota batzuk identifikatzea eta aztertzea, baita prebentzio-kudeaketan dituzten inplikazioak ere.• Osalaren gertakari psikosozialak ikertzeko metodologiatik abiatuta, sexu-jazarpenagatiko eta sexuan oinarritutako istripuen ikerketa kudeatzeko tresnak sortzea.• Osalaneke eta Lan Ikuskaritzako teknikariei zuzendutako prestakuntza landu eta ematea: sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko online prestakuntza-moduluaren bidez.• Laneko historia klinikoa berrikustea, lanean indarkeria matxistaren arriskua detektatzeko galderak sartzeko.• Laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistemetan sexu-indarkeriaren eta sexuan oinarritutako indarkeriaren prebentzioa txertatzea sustatzeko dokumentua egitea.
5.20	<p>Aurrerapen teknologikoekin zerikusia duten lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak identifikatzea eta aztertzea. Prestakuntza- eta informazio-materiala prestatzea.</p>



ARDATZA GOBERNANTZA: BOTERE PUBLIKOEN 3 BALIOA EMATEN DIOTE LANEN SEGURTASUN ETA OSASUNEN GOBERNANTZARI

6. HE: Botere publikoek legeak egiten dituzte EAEko administrazioaren eskumenen barruan, egungo araudia berrikusten dute, hura hobetzea sustatzen dute, hura betetzeko aholkuak ematen dituzte eta betetzen dela kontrolatzen dute

Zk.	EKINTZAREN IZENA
6.1	Prebentzio-zerbitzuentzako prestakuntza, prebentzio-zerbitzuen eta auditoretza-erakunde espezializatuaren osasun-zerbitzuak eta osasun-jarduerak elektronikoki izapidetzeko aplikazioa erabiltzeko.
6.2	Laneko, osasuneko eta justiziako agintarien laguntza teknikoko eskaerei erantzutea, bai eta laneko ikuskatzailetzakoei ere.
6.3	Osasun Sailarekin lankidetzan aritzea amiantoaren biktimentzako konpentsazio-eskubidearen aitortpenaren kudeaketan, EAEko Amiantoaren Biktimen Balorazio Taldean (ABBT) parte hartuz: ekainaren 17ko 483/2025 Errege Dekretuaren I. Eranskineko patologia indemnizagarriak egiaztatzeko irizpenak prestatzea (483/2025 Errege Dekretua, amiantoaren biktimentzako konpentsazio ekonomikorako eskubidea aitortzeko baldintzak ezartzen dituena eta prozedura arautzen duena), eta patologia horren eta amiantoaren esposizioaren arteko jatorria edo kausazko lotura egiaztatzea.
6.4	Amiantoa duten materialak kentzeko lan-planen kontrola egitea, Lan Agintaritzak hala eskatuta: lan-agintaritzarekin eta laneko eta gizarte-segurantzako ikuskaritzarekin koordinatuta egotea. <ul style="list-style-type: none"> Osalanek, Lan Ikuskaritzak eta Lan Agintaritzak osatutako lantaldea mantentzea, amiantoaren presentziaren aurrean jarduteko irizpideetan zalantzak argitzeko (suhiltzaileen kolektiboarekin lanean hasita). Garbigunek amiantoa duten materialen kudeaketan duten jarduerari buruzko aholkularitza teknikoak. Ingurumen, Osasun eta Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburuordetzak osatutako amianto-mahaian parte hartzea.
6.5	Kanpoko prebentzio-zerbitzuek akreditazio-baldintzak betetzen dituztela kontrolatzea, eta prebentzio-zerbitzu mankomunatuak eratzea, bai eta laneko arriskuen prebentzioaren auditoria egin nahi duten erakundeak ere, Lan Agintaritzak hala eskatuta.
6.6	Osasun-baimenaren eta prebentzio-zerbitzuen kontrolaren arloko eskumenak erabiltzea, arau-haustearen ondoriozko neurriak proposatzeko aukera barne.

6. HE: Botere publikoek legeak egiten dituzte EAEko administrazioaren eskumenen barruan, egungo araudia berrikusten dute, hura hobetzea sustatzen dute, hura betetzeko aholkuak ematen dituzte eta betetzen dela kontrolatzen dute

Zk.	EKINTZAREN IZENA
6.7	OSALANen jasotako salaketei erantzutea, Laneko Osasun Unitatearen (LOU) eskumen-eremuari dagokionez, prebentzio-zerbitzuen gaineko osasun-agintaritzaren aldetik.
6.8	<p>Lan arriskuen prebentzioari buruzko araudia berrikustea, egokitzeko eta hobetzeko proposamenak egitea, bereziki enpresa txiki, langile autonomo eta egungo egoerara egokitzeko kolektibo zailenetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gainerako autonomia-erkidegoekin eta LSOINrekin batera parte hartzea, Laneko arriskuen prebentziorako Lurralde arteko Sarearen bidez, Laneko arriskuen prebentzioari buruzko Legearen eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduen berrikuspena hobetzeko proposamenak helarazteko.

7. HE: Gobernuaren eta beste administrazio publiko batzuen politika guztietan laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduerak sartzen dira

Zk.	EKINTZAREN IZENA
7.1	<p>2021-2026 aldirako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia Osalaren funtzioen eremuan hedatzen amaitzea eta azken ebaluazioa egitea.</p> <p>2027-2032 aldirako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia berria egitea, botere publikoekin, gizarte-eragileekin eta prebentzio-zerbitzuekin batera, langileen segurtasunean eta osasunean eragin positiboak dituzten politikak garatzeko, helburu eta konpromiso komunak adostuta.</p>
7.2	Aurrekontuak egitea, helburuak ezarri eta aurrekontu-programak ebaluatzea, genero-eraginaren azterketa eta aurrekontuaren gauzatze-maila barne.
7.3	Kudeaketa plana egitea, haren jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta emaitzak jardueramemorian argitaratzea.
7.4	<p>Emakunderekin lankidetzan aritzea, genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioran txertatzera bideratutako baterako ekintzak gauzatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko online prestakuntza-programa abian jartzea. • Genero-ikuspegia duten prebentzio-kudeaketako jardunbide egokiak identifikatzea, Euskalitekin lankidetzan. • Dibulgazio-jardunaldi bat antolatzea, Lan Ikuskaritzarekin lankidetzan.



7. HE: Gobernuaren eta beste administrazio publiko batzuen politika guztietan laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduerak sartzen dira

Zk.	EKINTZAREN IZENA
7.5	<p>Organo eskudunekin lankidetzak garatzea, Laneko arriskuen prebentzioa herri-lanetan eta azpiegitura handietako obretan integratzeko.</p>
7.6	<p>Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Industria Garatu eta Administrazio Zuzendaritzarekin (DDAI) lankidetzan aritzea, makinetako segurtasun-araudiaren aplikazioa optimizatzeko, honako jardun-ildo hauekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Makinak diseinatzeko eta fabrikatzeko segurtasun- eta osasun-baldintzei buruzko 2023/1230 (EB) Erregelamendura egokitzeak duen eragina aztertzea. • Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren eta OSALANen artean makinekin batera segurtasun-zuzentarauaren arloan jarduteko prozeduratik eratorritako jarduerak gauzatzea, eta aldaketak proposatzea, behar izanez gero. • Industriaren arloko dirulaguntzen arauetan baloratu beharreko prebentzio-irizpideak sartzea. • Baterako batzorde teknikoaren bilerak egitea, helburu hauekin: <ul style="list-style-type: none"> » Makinei buruzko 2023ko ekainaren 14ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/1230 EBko Erregelamenduaren azterketa eta aplikagarritasuna. » OSALANek arrisku-egoerak sortzeko antzemandako prebentzio-gabeziak bateratzea. <p>Lankidetzak, Industria Garatzeko eta Administrazio Zuzendaritzari aholku emateko, kontsumitzaileak babesteko kanpainen barruan erosi berri diren makinek izan ditzaketen arriskuei buruz.</p>
7.7	<p>OSALANentzat interesgarriak diren erakunde arteko batzordeetan eta lantaldeetan, edo OSALANek ezagutzak eman ditzakeen lantaldeetan parte-hartzea, eta jarraipena eta ebaluazioa egitea. 2026rako taldeak eta azpitaldeak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalan (CNSST) eta lantaldeetan parte hartzea. • Laneko Arriskuen Prebentziorako Estatuko Fundazioan (LGENF) eta haren batzordeetan parte hartzea. • Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalarekin (GSIN) eta lantaldeekin parte hartzea. • Lan Osasuneko Ponentzian parte hartzea, Osasun Ministerioarekin eta AKZekin batera. • Laneko Segurtasun eta Osasunerako Lurralde arteko Sarean parte hartzea (GSIN eta autonomia-erkidegoak). • Enpresa Osasungarrien Espainiako Sarean parte hartzea. • UNE - ESPAINIAKO NORMALKUNTZA ELKARTEA/ISO- NORMALIZAZIO-RAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEA taldeetan parte hartzea.
7.8	<p>Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin (GSIN) lankidetzan aritzea, Ezintasunak Baloratzeko Taldeen bileretan parte hartzea.</p>

7. HE: Gobernuaren eta beste administrazio publiko batzuen politika guztietan laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduerak sartzen dira

Zk.	EKINTZAREN IZENA
7.9	Hitzarmenaren jarraipena egitea eta hobetzeko ildoak proposatzea, amiantoaren lan-erabileraren ondoriozko patologien eraginpean dauden langileei dagokienez baterako jarduketak egiteko. Hitzarmen hori GSINek, EAEko Administrazio Orokorrak, Osakidetzak eta OSALANek sinatu dute.
7.10	Ezbehar-tasaren Fiskaltzaren eta OSALANen arteko jardueren koordinazioa, elkarlanean aritzeko. <ul style="list-style-type: none"> Lankidetzeta lurraldean parte hartzen duen taldean: OSALAN, Lan Agintaritza, Lan Ikuskaritza, Ezbeharren Fiskaltza.
7.11	Liburutegi espezializatua Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloko erreferentziazko zentro bihurtzea, hainbat motatako informazio-baliabide eguneratuekin (monografiak, aldizkako argitalpenak, funts zaharra, etab.), paperean eta/edo euskarri elektronikoan, Osalaneko langileei eta, oro har, herritarrei zerbitzu ugari ematen diena (Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi integratu gisa). <ul style="list-style-type: none"> Eduki espezifikoa: laneko segurtasuna, higiene industrial, ergonomia, psikosoziologia aplikatua eta laneko osasuna. Zerbitzuak: kontsultak, informazioa, irakurketa-gela, mailegua, erreserba eta berritzea, liburutegien arteko mailegua, legegintza- eta arau-arloko asteko nobedadeen buletinak, dokumentuak (artikuluak) lortzeko zerbitzua, informazioaren hedapen selektiboa, erosketa-iradokizunak eta erreprografia, besteak beste. Artxiboa kudeatzea: <ul style="list-style-type: none"> Artxibatutako espedienteen hornidura, digitalizazioa eta maileguen kontrola Osalaneko langileentzat. Osalanen dokumentu-serieak Artxiboa Kudeatzeko Sistemara egokitzen jarraitzea, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Orokorra administratzen duen AKS/SGA aplikazioaren bidez.
7.12	OSALANen zerbitzuak eta prozesuak hobetzea: <ul style="list-style-type: none"> OSALANen zerbitzu eta prozeduren katalogoa berritzea. Prozeduren izapidetze elektronikoa hobetzea. Dagoeneko eginda dauden edo egiten ari diren lan-prozedurak onartzea eta zabaltzea. Osalanen administrazio-jardueran genero-ikuspegia txertatzeko prozedura berriak garatzea. Zerbitzuen aginte-taula estrategikoa eta aginte-taulak garatzea. Gobernuko beste arlo batzuekiko, beste administrazio publiko batzuekiko eta gizarte-eragileekiko elkarreraginak dokumentatzea. Barne-komunikazioko plana egitea.
7.13	2025-2028 Berdintasun Plana garatzea, gauzatzea bultzatzea eta jarraipena egitea.



7. HE: Gobernuaren eta beste administrazio publiko batzuen politika guztietan laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko jarduerak sartzen dira

Zk.	EKINTZAREN IZENA
7.14	OSALAN en euskararen erabilera normalizatzeko planaren betearazpena bultzatzea eta planaren jarraipena egitea.
7.15	Giza baliabideen plangintza eta antolaketa egitea, lanpostuak eta zerbitzuaren beharrak betetzen direla ziurtatzeko.
7.16	Lantaldeak, Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin komunikatzeko kanalarari eusteko, lankidetzari hori behar duten ekintza guztiak koordinatzeko, batez ere 5. eta 10. HEtik eratorritako ekintzak: Koordinazio-taldearen prestakuntza eta aldizkako bilerak zuzendaritzetatik: <ul style="list-style-type: none"> • Araudia garatzen laguntzeko taldea: Euskadiko Osasun Plana, Prebentzio Zerbitzuen osasun-jarduerari buruzko Dekretua. • Gaixotasun transmitigarrietarako, klusterretarako eta txertoetarako lankidetzari-taldea. • Gaixotasun profesionalaren susmoaren jarraipen-batzordea. • Informazio-sistemak koordinatzeko lankidetzari-taldea. • Laneko minbizia aztertzearen koordinazioa. • Osasuna sustatzeko eta adikzioak prebenitzeko jarduerak koordinatzeko taldea. • Prebentzio-zerbitzuekin, Osasun Publikoarekin eta Osalanekin osatutako taldea, komunikazio- eta koordinazio-bideak ezartzeko. • Baterako jardueren garapenean sor daitezkeen guztiak.
7.17	Prebentzio-zerbitzuek BAME/BAE erako irakaskuntza-unitateak sortzen laguntzeko dirulaguntzen lerroa.
7.18	Laneko mugikortasuneko eta bide-segurtasuneko plana egitea.



8. HE: Lan Arriskuen Prebentzioaren egungo erudian (autonomoak, plataformak, etxeko lana) sartzea zaila duten lan-moduen pean dauden kolektiboen lan-baldintzak eta LSOarako sarbidea hobetu dira

Zk.	EKINTZAREN IZENA
8.1	<p>Langile autonomoen artean laneko arriskuen prebentzioa sustatzea:</p> <ul style="list-style-type: none">• Online prestakuntza-eskaintza: 5 ikastaro urtean (modulu orokorra + berariazko moduluak: eraikuntza, industria, garraioa, merkataritza).• Plataforma birtuala mantentzea.• Online prestakuntzan modulu berriak garatzea jarduera-sektorearen arabera.• Laneko arriskuen prebentzioari buruzko legeriaren erreforma aztertzen ari den CNSSTko lantaldeari laguntzea.• Langile autonomoentzako informazio-hitzaldiak proposatzea (online).
8.2	<p>Laneko segurtasunaren eta osasunaren ezagutza sustatzea etxeko enplegatzaileengan eta enpleguatuegan:</p> <ul style="list-style-type: none">• Gizarteratze Zuzendaritzarekin batera, etxeko langileak elkartzeko foroetan parte hartzea.• Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroaren Enplegu Batzordean parte hartzea, enplegatuei laneko arriskuen prebentzioari buruzko gaiak azaltzeko.

9. HE: Ezagutza sortzen da, laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegidun prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, gizarte-aldaketei (zahartzea, lana antolatzeko modu berriak, globalizazioa), teknologikoei (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumen-aldaketei (klimatek aldaketa) aurrea hartzea ahalbidetzen duena

Zk.	EKINTZAREN IZENA
9.1	<p>Laneko arriskuen prebentzioari buruzko ezagutza sustatzea, Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloko alderdi interesgarriari buruzko prestakuntza- eta dibulgazio-ekitaldiak eginez (ikastaroak, tailerrak, jardunaldiak, etab.), eta Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko mezuak zabaltzea enpresaburuekin, zuzendariekin, gizarte-eragileekin, elkarrekin, erakunde espezializatuekin eta abarrekin egindako ekitaldi eta topaguneetan.</p>
9.2	<p>Prebentzio-ordezkarien oinarrizko prestakuntza kudeatzea sindikatuekin batera.</p> <ul style="list-style-type: none">• Prebentzioko ordezkariak prestatzeko dirulaguntzaren oinarri arautzaileak egokitzea, dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legea.• Enpresa egiaztatuentzako prestakuntza, ordezkarietzako prestakuntzan genero-ikuspegia txertatzeko.
9.3	<p>Prebentzio-zerbitzuetako teknikarietzako prestakuntza-plana sustatzea.</p>



9. HE: Ezagutza sortzen da, laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegidun prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, gizarte-aldaketei (zahartzea, lana antolatzeko modu berriak, globalizazioa), teknologikoei (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumen-aldaketei (klima-aldaketa) aurrea hartzea ahalbidetzen duena

Zk.	EKINTZAREN IZENA
9.4	Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako prestakuntza ematea eta sustatzea, diseinatutako planaren arabera eta Laneko Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiarekin lankidetzan.
9.5	Osakidetzako osasun-langileei lan-osasunaren arloko prestakuntza erraztea eta sustatzea.
9.6	Euskadiko Lan Osasuneko Irakaskuntza Unitate Multiprofesionaleko BAME/BAEE en prestakuntzan laguntzea, OSALANen prestakuntza-ibilbidea eginez. Prebentzio-zerbitzuetan egiaztatutako irakaskuntza-unitateen etorkizuneko BAME/BAEEen prestakuntzan laguntzea.
9.7	EHUrekin lankidetzan aritzea Erizaintzako Graduko ikasleen prestakuntzan , ikasleak OSALANetik igarota.
9.8	Unibertsitatearekin lankidetzan aritzea ikasleen prestakuntzan, UPV/EHUko laneko segurtasun eta osasunari buruzko masterrean .
9.9	EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Masterreko ikasleei OSALANen praktikak egiteko aukera eskaintzea.
9.10	Laneko arriskuen prebentzioko teknikarien prestakuntza praktikorako lankidetzaz-ildoak ezartzea.
9.11	Laneko Medikuntza eta Erizaintzako Eskola Nazionalarekin parte hartzea espezialitateetako lehen urteko BAME eta BAEE langileen prestakuntza teorikoan.
9.12	Arrisku psikosozialei buruzko materiala eta informazio- eta prestakuntza-ekintzak garatzea: <ul style="list-style-type: none"> • PSIKOPREBEN webgunea indarrean mantentzea, informazio- eta prestakuntza-materialak eta -edukiak garatuz. • Maiz egindako galderen erantzun-gordailu bat sortzea. • PSIKOPREBEN espazioan aldizkako prebentzio-aholku bat sartzea. • Laneko psikosozilogiari buruzko XVI. Jardunaldiak antolatzea. • Beste ekitaldi/jardunaldi batzuetan parte hartzea eta laguntzea.
9.13	Barne-prestakuntzako plana.



9. HE: Ezagutza sortzen da, laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegidun prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza sustatuz, gizarte-aldaketei (zahartzea, lana antolatzeko modu berriak, globalizazioa), teknologikoei (digitalizazioa, automatizazioa) eta ingurumen-aldaketei (klimatek aldaketa) aurrea hartzea ahalbidetzen duena

Zk.	EKINTZAREN IZENA
9.14	OSALANen Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2026) garatzea eta kudeatzea.
9.15	SAFERA (Industria Segurtasuneko Europako Plataforma Teknologikoa) Europako taldeko kide gisa laguntzea laneko segurtasun eta osasunari buruzko ikerketa-proiektuak hautatzen eta finantzatzen.
9.16	Prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako dirulaguntzen deialdia.
9.17	Gomendioen gida bat egitea, batez ere udalei zuzendua, bide publikoan aldamiok instalatzeko eta muntatzeko segurtasun-baldintzak kontuan har ditzaten dagokion baimena ematerakoan.
9.18	Genero-ikuspegia eta laneko arriskuen prebentzioa integratzeari buruzko online prestakuntza-modulua ematea eta eguneratzea, langile, enpresaburu eta prebentzio-zerbitzuentzat.
9.19	Dirulaguntza, 2026an laneko arriskuen prebentzioaren arloan jarduerak egiteko (Laneko Arriskuen Prebentziorako Estatuko Fundazioa).
9.20	Eraikuntzako urteko lanaldia ezartzea. Helburua da eraikuntza-obretako arriskuei buruzko materiala eta informazio- eta prestakuntza-ekintzak garatzea.
9.21	Laneko arriskuen prebentzioarekiko konpromisoaren saria, urterokoa.



10. HE: Informazio-sistema eta adierazle egokiak ezartzen dira, datuak sistematikoki biltzeko, aztertzeko eta eragileei eta gizarteari itzultzeko, osasuna prebenitzeko eta babesteko beharrezkoak diren neurriak planifikatu eta ebaluatzeko, genero-ikuspegia eta beste gizarte-baldintzatzaile batzuk kontuan hartuta

Zk.	EKINTZAREN IZENA
10.1	Prebentzio-zerbitzuek Datuen Gutxieneko Multzoa betetzen parte har dezaten sustatzea. Lan-osasunari buruzko informazio-sistema horren helburua da EAEko langileen esposizioen mapa eta osasunerako kalteen mapa lortzea.
10.2	Laneko historia klinikoaren eredu an aurrera egitea eta historia bakarra bateratzeko arauen garapenean aurrera egitea, Osasun Sailarekin batera.
10.3	EAEko ezbehar-tasari eta gaixotasun profesionali buruzko urteko txostenak egitea eta zabaltzea.
10.4	Sistemen plana osatzen duten aplikazioak garatzea. <ul style="list-style-type: none"> • Laneko istripuen espedienteak kudeatzeko eta izapidetze elektronikoa egiteko aplikazio informatikoak hobetzea. • Amiantoaren eraginpean dauden edo egon diren langileak eta enpresak kudeatzeko aplikazioa ezartzea. • OSALANen laborategia kudeatzeko aplikazioaren eguneratzea ezartzea. • Osalan.app aplikazioan hobekuntzak.

12. HE: Indartu eta sendotu egin da gizarte-eragileekiko elkarrizketa, LAPen kudeaketa-eredu bat lortzeko, pertsonak erdigunean jarri eta gizarte-determinatzaileak txertatzen dituen

Zk.	EKINTZAREN IZENA
12.1	OSALANen Kudeaketa Planaren jarraipena egitea gizarte-eragileekin, horretarako sortutako Kontseilu Nagusiaren berariazko batzordearen bileretan, eta haien ekarpenak jasotzea.
12.2	Kontseilu Nagusitik eratorritako berariazko prestakuntza-batzordearen bilerak gizarte-eragileekin egitea, ezarritako aldizkakotasunarekin, eta haien ekarpenak jasotzea.



ZERBITZU OROKORRAK

Dinamita bidea, z.g. (Basatxu mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

ARABAKO LURRALDE ZENTROA

C/Pintor Clemente Arraiz kalea, 7
01008 Vitoria-Gasteiz (Arava)
Tel. +34 944 032 190

BIZKAIKO LURRALDE ZENTROA

Dinamita bidea, z.g. (Basatxu mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

GIPUZKOAKO LURRALDE ZENTROA

Maldatxo bidea, z.g.
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel. +34 944 032 190